

noaia

**Usurbilpedia
jarri da martxan**

**Herriko aparkalekuak
libratu egin behar dira
larunbat goizean**

**Asteburu honetan
hasiko dira
Aginagako festak**



**Ahalari tiraka,
hariketa hariketa
Hari GaTTunk
ari GaTTunk TTunk
Hari GaTTunk**

Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)



ENPRESEN EKITALDIAK (BILERAK, INZENTIBOAK...)

- **BILERA GELAK, 200 PERTSONATAKO AFOROA.**
- **INTERNET ABIADURA HANDIKOA ETA BUSINESS FACILITIES DUTENAK (AHOLKULARITZA, IKUS-ENTZUNEZKOAK, INFORMATIKAKO TRESNAKALOKAIRUAN, AZAFATAK...)**
- **ESKUALDEKO ENPRESEI TARIFA BEREZIAK (ORIO, USURBIL...)**
- **MENU EXEKUTIBOA, EGUNEKO MENUA, ASETEBURUKOA...**



Hondartza bidea 1, Orío 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com

Albiste iruditan

Batzokian egindako pintadak gaitzetsi ditu EAJk

EAJ-PNV alderdiaren egoitzan pintadak agertu ziren aurreko astean. EAJk prentsa ohar bidez gaitzetsi du ekintza: "Bizikidetzeta eta errespetua eskatzen ari garenean horrelako ekintzak atzera pausoak dira. Pentsatzen genuen usurbildarrak aldaketa prozesu batean ginela, baina tamalez, hau horrela ikusten ez duten herritarrek ere baditugu gure artean, penagarria da. Ikusi beharko dugu beste herritar eta politikariek ere zer pentsatzen duten bortizkeria eta giza errespetu falta honen aurrean".

Azken hilabeteotan hizpide izan den inklusibitateari aipamena egiten diote oharrean. "Usurbilen hainbeste bultzatzen ari garen inklusibitate gaiarekin honela azaltzen da dekalogoan aipatutakoa: herritar gisa dagozkigun eskubideak eta aukera-berdintasuna bermatzea guztion esku dago. Hortaz, legeetatik harago, behar beharrezkoa da jendartearen eraldaketa sozial eta kultural sakona inklusiorantz".



Irailaren 23an agertu ziren pintadak herriko hainbat tokitan eta baita EAJren Batzokian ere.

Laburrean

1946an jaiotakoen kinto bazkaria

Urriaren 18an Antxeta jatetxean batzeko deia egin dute. Izen emateko Laurok dendara gerturatu beharra dago, edo deitu bestela 943 363 448 telefono zenbakira. Apuntatzeko azken eguna urriaren 10a larunbata izango da.

Artisautza Azokan postua jartzeko deialdia

Interesdunek urriaren 10era arteko epea dute izena emateko. Apuntatzeko Aitzaga Elkartekoekin harremanetan jarri edo Usurbilgo Udalera deitu (943 371 951) eta datuak (izen abizenak, artisautza jarduera, telefono zenbakia edo helbide elektronikoa) eman.

Zubietako Herri Batzarrak bilera deitu du

Zubietari loturiko hainbat gai "potolo" jorratu nahi dira. "Zubietaren Herri izaera, Eskola Txikia, Alamandegia, Erraustegia... Hauek bideratzeko bilera batera deitzen dizuegu. Eskertuko genuke etorri eta zuen ideiak eta kezak azaltzea". Urriaren 13an, 19:00etan Kaxkapen.

noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaia.eus // www.noaia.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Luis Aranalde

Aylan

Duela egun batzuk argazki batek bete zituen Europako egunkari azal guztiak: Aylan Kurdi haurraren gorpuak: Turkiako itsas ertzean zegoen hilda, ahoz behera. Polizi batek jaso besoetan eta zintzilik zeraman. Munduko Pietá bidez guztien irudia zirudien. Kontzientzi oro astindu du gogor. Siriako drama latzaren ikono nagusi bihurtu da. 2011ko martxoan hasi zen Siriako gatazka, El Assaden gobernuaren kontra matxinatu zirenean. Gerrak lau urte eta erdi iraun du dagoeneko eta borrokek sortarazitako iheslarien egoera kritikoa da. Siriak 23 milioi biztanle ditu; gatazkak lau milioi errefuxiatu baino gehiago eragin ditu. Horrek esan nahi du Siriako herritarren seirenek baino gehiagok herrialdea utzi beharra izan duela. Errefuxiatu horietako gehienek inguruko herrialdeetan aurkitu dute babesa. Turkiak 1.805.255 siriak jaso ditu. Libanok milioi eta erdi. Jordaniak 600.000 mila. Gatazkak ez die eragiten soilik herrialdetik ihes egiten dutenei; han

geratu direnak ere pairatu dituzte haren ondorioak. Zazpi milioi lagunek baino gehiagok etxea utzi eta beste herrietara desplazatu beharra izan dute Sirian. Orain Europara datozkigu ahal duten moduan, arrisku galantak hartuz, milaka kilometro eginez... Tragedia izugarri baten aurrean aurkitzen gara.

"Lehen Siria ez zen paradisu bat, baina, elkarbizitza atsegin batez gozaten genuen. Hamasei etnia daude eta batere arazorik gabe bizi ginen bata bestearen ondoan karduak, armeniarak, txetxeniarak, musulmanak, kristauak. Inbidia ematen genion inguruko lurraldeetako jendeari; herri horietan erlijioak pisu handia du, baina, Sirian Konstituzio laiko dugu eta erlijioak ez du eragin handirik. Orain dena desegin dute: autopistak, azpiegiturak, ospitaleak, ikastetxeak. Bi milioi haur eskolarik gabe, 25.000 hildako. "Sinestezina da", dio Euskadin urte asko daramatzan Moain Saleh pediatria siriarrak.

Inork ez du gerra gelditu nahi. Iran eta Errusia alde batetik. Bestetik Arabia Saudi eta Turkia ameri-

karren eta europarren laguntzarekin Inork ez du soluzio egoki batez hitz egiten. Talde bakoitzak bere aldekoak armatzen ditu. Diruarekin eta armekin konpondu nahi dute dena. Inork ez du esaten "geldi dezagun masakre hau, egin dezagun zerbait herri honen alde". Aylan bezalakoak milaka konta daitezke. Sortaldekook errudun gara Siriako egoera beldurgarri horretan. Arzooa Sirian dago eta konponbidea han aurkitu behar da, ez armak salduz, bertako pobreziaen aurka lan eginez, lurralde horietako erregimen ustel eta despotikoekin amaituz, fanatismo erlijiosoekin bukatzen saiatuz.

Zer egin bitartean guregana etorri nahi duten errefuxiatuekin? Ez dago zalantzarik: goseari mugarik ezin zaio jarri, ezta hesirik ere Hungarian egin duten bezala. Europako Batasunak bihotz zabalatasunez jokatu behar luke une honetan ahanzi gabe Bigarren Mundu Gerraren ondoren, bere baitan etxerik gabe gelditu ziren milioi eta erdi errefuxiatu lagundu zitzaizela aterpe bat lor zezaten. Orain

Europako Batasuneko kideak ez dira gai akordio sendo batera iristeko, errefuxiatu kopuruaren gainean. Lotsagarria da nola ari diren azpitik subastatzen etorkin kopuruak.

Europarrok harro gaude Giza Eskubideen Azalpen Unibertsalarekin; agian, burutu dugun ekintzarik ederrena da. Baina orain frogatu egin behar dugu eskubide horiek ez direla asmo polit hutsak.

Lehenengo artikulua honela dio: "Gizon-emakume guztiak aske jaitzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute". Joxe Arregik dioenez, Aylan deiadarka ari zaigu: "Europa, ez esan gezurrik. Ez itxi aterik zuregana datozenei. Eliza katolikoa: baztertu zure obsesio doktrinalak eta moralak eta itzul zaitez Samariar Onaren parabolara". Aylan biziaren hazi bihurtu da etorkinei harrera ona egiten dieten guztiengan.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | **Luis Aranalde** | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue

#Kilometroak15: eraso sexisten aurrean, sorospen postuetara jo

Jai parekideak sustatzeko batzordea gogor aritu da azken urtean lanean, jorratu beharreko ibilbidea luzea izan arren, hainbat urrats ematen. Jai parekideak ikuspuntu feminista batek hausnartu eta landu nahi izan dira. Zeharlerro hau, egitarauan, antolakuntzan edota komunikazio

mailan txertatu da. Baita #Kilometroak15-en abesti eta bideoklipean.

Protokoloa prest

Jai parekideetan hezteko saioak eta sentsibilizazio ekimenak sustatu dituzte. Eraso sexisten aurkako protokoloa ere landu dute. Iganderako mezu argia; eraso sexisten aurrean,

"erasotua izan denak guneko sorospen postura jo dezala eta bertatik bideratuko dute laguntza". Protokoloak diseinatuak ditu batetik, prebentzio lana eta gertatuko balitz, eraso sexista edo sexualei aurre egiteko laguntza baliabideak, eta eman beharreko erantzun sozialaren nondik norakoak.

Zubietako bidea oinezkoentzat eta txirrintentzat izango da igande honetan

#Kilometroak15 eguna dela eta, Zubietako bideak "bide gorri" izaera izango du. Eskola Txikitik Santuenerako bidea soilik txirrintentzat eta oinezkoentzat izango da. Zubietarrek ezingo dute autoa erabili. Udaltzaingoak aditzaera eman duenez, urgentziarik emango balitz hona deitu: 943361112.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAuk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 9. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 5.

Joan Mari Torrealdai, 2015eko Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria

Joan Mari Torrealdai Nabea (Forua, 1942) soziologo, idazle eta euskaltzaleak jasoko du 2015eko Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria. Epaimahaiaren hitzetan, urte zailenetatik hasi eta gerora, lan handia egin du euskararen eta euskal kulturaren sustapenean, gizartearen "eredugarri" eta "erreferente" bilakatu.

Ilido berean, idazle bizkaitarraren kultur ekoizpena goratu du, eta bere curriculumak sariaren filosofiarekin bat egiten duela nabarmendu du: "Manuel Lekuonaren kezka ez zen bakarrik izan euskara eta euskal kultura ikertzea, baizik eta biziartzea, hau da, gizartearen merezi duten lekua ematea, eta horrekin bat egiten du Joan Mari Torrealdaiak".

Sari-emate ekitaldia

Irabazlea hautatzeko bi bide erabili dira. Batetik, bozketa prozesua



Iñaki Dorronsoro, Eusko Ikaskuntzako presidentea eta Joan Mari Torrealdai. Astelehenean jaso zuen albistea Torrealdai.

izan da, eta bertan Euskal Komunitate Globalak eta Eusko Ikaskuntzako bazkideek eman dute beren bozka. Horiek azken emaitzaren %40 balio izan dute, eta mila lagun inguruk parte hartu du. Bestetik, Epaimahai Instituzionala osatu da, eta bere iritziaz azken emaitzaren %60 balio izan du.

Aurtengo edizioan honako erakundeek osatu dute: Eusko Ikaskuntza, Euskalerraren Adiskideen Elkarte, Euskaltzaindia, Aranzadi Zientzia Elkarte, Labayru Ikastegia, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa eta Vianako Printzea Erakundea.

Sari-emate ekitaldia 2016ko lehenengo hiruhilekoan egingo da.

Emakumeentzako ahalduntze ikastaroak

Urriaren abiatuko diren saioetan parte hartzeko izen emateko deialdia zabaldu dute Parekideetasun Sailetik:

"Hegoak ebaki banizkio"

"Maitasun erromantikoaren inguruko hausnarketatik abiatuz, harreman parekideak eta osasungarriak eraikitze giltzarriak landuko dira ikastaroan".

■ Egunak: urriak 19, 26, azaroak 2, 9, 23, 30 eta abenduak 14 (astelehena).

■ Orduetgia: 17:00-19:00.

■ Lekua: Potxoenean.

■ Irakaslea: Clara Wolfram.

■ Hizkuntza: euskaraz.

"Heldutasunaren gozamina"

"Zahartzen hasten garenean ematen diren aldaketa fisiko, hormonal, psikologiko eta materialei modu era-



Harreman parekideak eta osasungarriak eraikitze irizpideak eskainiko ditu Clara Wolfram.

ginkorrean aurre egiteko gakoak landuko dira, heldutasunaren etapa, ahalik eta modu aberasgarrian bizi-itzeko".

■ Eguna: ostegunetan.

■ Orduetgia: 17:00-19:00.

■ Irakaslea: Pepa Bojo.

■ Hizkuntza: gaztelera.

■ Lekua: Bake Epategi atzeko lokalean.

■ Hasiera data: Urriak 1.

Izen ematea doan: 943 377 110 edo parekideetasuna@usurbil.eus
Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Datozen egunetan

ekitaldi ugari,

Gure Pakearen eskutik

Irailak 30, asteazkena

■ 08:15 Hernanira autobusez Lau-
rok ondoko geltokitik eta Hernani-
tik Lasartera ibilaldia gero: Her-
nani-Urnieta-Lasarte. Iraupena: 3
ordu inguru. Hamaiketako (nork
bere kontura) Lasarten.

■ Eguerdian, bazkaria nahi duena-
rentzat Artzabalen.

Urriak 1, osteguna

■ 16:30 Hitzaldia Artzabalen:
"Herentzia eta Testamentua".

Urriak 2, ostirala

■ Memoria ikastaroaren hasiera.

Urriak 11, igandea

80 urtekoen omenaldia:

■ 12:00 Meza.

■ 14:00 Bazkaria Atxega Jaure-
gian omendu, eta hauen senide eta
lagunentzat (izen ematea irailaren
25ean amaitu zen).

Antolatzailea: Gure Pakea Elkarte.

Ikastaroak martxan

dira Santuenean

Juanjo Lertxundik gidatuko duen
ikastaroa urriaren 1ean aurkez-
tuko dute, 18:30ean Santuenea
Elkarteko egoitzan.

Yoga. Irakaslea: Juanjo

■ Asteartetan: 18:30-20:00.

■ Astearte eta ostegunetan:

09:15-10:45. Irakaslea: Abelina.

16:00-17:30. Irakaslea: Juanjo.

20:30-22:00. Irakaslea: Abelina.

Reiki. Irakaslea: Abelina

■ Asteazkenetan: 18:30-20:00.

Informazioa: Abelina Manso (619
791 170) eta Juanjo Lertxundi
(637 413 691).

Urriaren 17an,

1955eko kinto afaria

Urriaren 17an larunbata, ilun-
tzeko 21:00etan hasita Atxega
Jauregian. Urriaren 15a baino
lehen eman izena, telefono zen-
bakiotan: 615 760 458 (Patxi)
edo 675 717 020 (Mikel).

Euskal presoak euskal herriratzeko eskaera

Eskaera bikoitza oraingoan. Usurbilen Nahi Ditutugu bilguneak deituriko azken ostiraletako elkarretaratzean, euskal preso eta iheslarien eta haien senideen eskubi-deak errespetatzea galdegin zen irailaren 25ean, sakabanaketa amaitzea exijitzearekin batera. Egun berean, Espainiako Auzitegi Nazionala, hainbat euskal presoak euskal herriratzeko eskatzeko aurkezturiko helegiteak aztertzen hasi zen. Tartean, martxoaz geroztik jada kalean behar zuen arren, 2017. urtera arte espetxean jarraitu behar-



Irailaren 24ko elkarretaratzean sakabanaketarekin amaitzea eskatu zuten.

ko duen Xabier Aranburu "Xomorro" aginagarrarena. Honen harira Usurbilgo Sortuk deituta, euskal presoak euskal herriratzeko mobilizazioa burutu zen irailaren 24an.

"Bi Txoriburu" proiektuaren bigarren zatia

Bertako arropa diseinatzaileen erakustoki bihurtu zuen Sutegi ekainean, Zorione Mendez herritarrak. "Bi txoriburu" izeneko egitasmoa solidarioa ere bazen; batetik, lan baldintza kaxkarretan diharduten jostunen errealitatea ezagutarazi ziguten, zer, non eta zenbatean erosten dugun jabetu gaitezen. Eremu honetan lanean diharduten zenbait Gobernu

Kanpoko Erakunderen informazioa ere eskuragarri jarri zuten. Proiektu haren segida dator orain:

Urriak 9, ostirala

- Ordua: 18:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Ekitaldiak: "The True Cost" film-dokumentala eta "Emakume jostunen baldintzak" hitzaldia.
- Zehaztasunak: "Bi txoriburu" jarraipena emateko,

"The true Cost" (96 minutu) film-dokumentala proiektatuko dugu. Bertan, modak guggan duen inpaktua ikusi ahal izango dugu, eta, bide batez, pentsarazten jarriko gaitu zein dagoen ekoizpen guztiaren atzean. Ondoren, azalpentxo bat emango digu SETEMeko kide batek; markak, esplotazioa,... Kontsumo arduratsu baten alde, trukearen alde eta bertakoa kontsumitzearen alde.

Zuberoako kantariak alaitu zuten

Kantu Jira

Kantu Taldekoak hilabetezko azken larunbatean ibiltzen dira jiran. Aurreko larunbatean, Zuberoako hiru lagun izan zituzten aldamenen: Mixel Etxekopar, Jean Mixel Bedaxagar eta Sacha Standen. Gaeuz, Xiberoots taldekoak arituko ziren Mikel Laboa plazan.

Kantu jira berezi honetan, Kantu Taldea, Kilometroak 2015 eta Jexux Artze Kultur Elkarteak aritu ziren antolatzaileran lanetan.



Kantu Jiran ibili ziren, baina Sutegi aurrean geldialditxo bat egin zuten.



Astelehenean abiatuko da Dantza Taldearen ikasturtea

Datorren astelehenean, urriaren 5ean abiatuko du Usurbilgo Dantza Taldeak 2015-16 denboraldia, ikastaro eskaintza zabalarekin. Klaseen ordutegiak finkatu dituzte. Izena emana duzuenok, adi beraz:

■ Astelehenean: 19:30-21:00 Koreografiak Udaregi Ikastolan.

■ Asteartean: 18:45-19:45 LH3 + LH4 Oiardo Kiroldegian.

■ Asteazkenetan: 16:30-17:30 LH1 Oiardo Kiroldegian.

19:30-21:00 Plaza dantzak Udaregi Ikastolan.

■ Ostiraletan: 16:30-17:30 LH2 Oiardo Kiroldegian.

16:45-18:15 DBH4 Udaregi Ikastolan.

19:00-20:00 LH5 + DBH1 Oiardo Kiroldegian.

Oharra: saloi dantzen ikastaroa, urtariletik aurrera izango da.

Giro ona Aginagako Eskola Txikiaren egunean

Aginagako Eskola Txikiaren eguna izan zen aurreko larunbatekoa. Festa borobiltzeko, Egan taldekoak aritu ziren frontoiko giroa epeltzen.



Eganekoak, umeez inguratuta.

“Zuen zain egongo gattunk”



“Urtebeteko lana ikusiko dugu igandean”, hala adierazi zuten hedabideen aurrean.

Auzolanean buru-belarri egongo garen usurbildarrok prest egongo gattunk zuei ahalik eta ongi etorri beroena egiteko. Gonbidatuak zaudete guztiok, zuen zain egongo gattunk”. Urriaren 4an Usurbilen ospatuko den #Kilometroak15 ekimenera etortzeko antolatzaileek eginiko gonbita, egitaraua aurkezteko aurreko astean Ikastolen Elkartean hedabideentzat deitu zuten agerraldian.

Eñaut Lasarte #Kilometroak15 ekimeneko tokiko koordinatzaileak,

Mariaje Imaz Udaregi Ikastolako zuzendariak, Arantza Manterola Ikastolen Elkarteko kideak, eta Kilometroak jasangarri, parekide eta inklusiboa izateko lanean jardun duten batzordeetako hiru ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian; Mikel Usabiaga, Garazi Lizaso eta Begoña Izeta usurbildarrek hurrenez hurren.

“Urtebeteko lanaren emaitza”

“Iritsi da unea: urriaren 4an, Usur-

bilen ospatuko da Gipuzkoako ikastolen jaia, Udaregi Ikastolaren alde. Urtebeteko lanaren emaitza ikusiko dugu egun horretan”, antolatzaileek esanetan.

Urriaren 4an Usurbila datozenek, herriko txokoez gozatu, Udaregi Ikastola bultzatzen ari den hezkuntza proiektua hauspotu, ikastolei babesa adierazi eta #Kilometroak15 ekimeneko zeharlerro ditugun jasangarritasun, parekidetasun eta inklusibitateari lotuta prestatu diren ekintzetan parte hartzeko gonbita luzatu dute antolatzaileek.

“Hondakinik onena, sortzen ez dena”

Lelo hau bereganatu du urte osoan ingurumen arloan lanean aritu den #Kilometroak15 ekimeneko batzordeak. Eta isla argia izango du urriaren 4an. Jasangarritasunean sakondu nahi baitute. Hartara, plastiko gutxiago kontsumitzeko iturriko ura edatea sustatuko dute. Herrian ditugun iturriak seinalezatu eta iturri gehiago jarriko dituzte txosnetan. Freskagarriak ez dituzte aluminiozko latetan zerbitzatu. Sagardoa, ardoa eta txakolinaren botilak berreskuratuko dituzte eta edalontzi berreskuratuko dituzte. “Festaren amaieran, edalontziak itzultzeko eskaria egingo zaie festazaleei. Baliabide asko jarri dira ahalik eta edalontzi gehien berreskuratuko”.

Bestalde, kontsumituko diren produktuak eskuratzeko, ahal den neurrian gertuko hornitzaileengana jo dute. Zerbitzatu diren produktuak kontsumitu ostean, hondakinak ez nahasteko baliabideak jarriko dira, gero auzolanean gaika biltzeko. Hiru guneetako ontzi marroietan bildutako organikoak guneotan bertan konpostatuko da. “Gune batean komun indorrek jarriko dira, inolako produktu kimikorik gabe, zerrautsa botaz dena konposta egiteko eramango da”, antolatzaileek esanetan.

Bizikleta martxa eta aparkaleku zerbitzua

Lasarteraino bidegorria egin dagoela baliatuz, Donostia Santueneko bosgarren gunearekin lotuko duen bizikleta martxa antolatu du #Kilometroak15 egunerako, Kalapie elkartearekin eta udalerrietako udaltzaingoekin batera. 9:30ean Donostiako Alderdi Ederretik abiatuko den ekimenera puntu ezberdinetan batzeko aukera egongo da. “Ahalik eta jende gehien

bizikletaz etortzea nahi dugu”, horixe antolatzaileen helburua.

Aparkalekua bizikleta erabiltzaileentzat

Zubietatik igaro eta Santuenean amaituko da martxa. Bertan, bizikletak aparkatzeko gunea egokitu du #Kilometroak15-ek Idiazabalgo Ampo enpresaren laguntzaz, bai martxan datozenentzat baita egu-

nean zehar bizikletaz etortzea erabakitzen dutenentzat ere. Aparkalekua zabalik izango da, 09:00-19:30 artean. “Aparkaleku zerbitzuaren bidez, jabeak bizikleta identifikatzen duen kodea jasoko du. Bizikleta aparkalekutik jasotzeko ezinbestekoa izango da kode hori erakustea. Zerbitzua ixtean, oraindik txirrinduak jaso gabe baldin badaude, Usurbilgo udaltzainen esku gera-

tuko dira, eta hurrengo egunetan jaso ahal izango dituzte”.

Ibilbidea (14 kilometro)

09:30 Donostia, Alderdi Eder.
09:40 Antigua.
10:00 Añorga.
10:10 Errekalede.
10:15 Lasarte-Oria.
10:30 Zubietta.
11:00 Santuenea.

#Kilometroak15, Usurbilpediaren lehen artikulua

Usurbilgo kultura eta ondarea lau haizeetara zabalduko duen proiektu berria aurkeztu zuen Elhuyar Fundazioak, pasa den irailaren 12ko Usurbil Herri Anitza! jaialdiaren baitan; Usurbilpedia. “2015eko Kilometroak Usurbilen izango dela baliatuz, Usurbileko eragile eta wikilari zenbaiten eskutik abiarazitako ekimena da, Usurbileko ondarea, kultura eta ezagutzea zabaltzea xede dituen”, proiektuaren sustatzaileen esanetan.

Usurbilpedia, udalerriri loturiko edukiak guztion eskuragarri jartzeko sortua da, herritarrek egin nahi dituzten ekarpenekin osatzen eta aberasten joan nahi duena.

Hastapenetan da egitasmoa. Kilometroak 2015ari loturikoa da sortu duten lehen artikulua, euskaraz. Eta beste 10 hizkuntzetara itzuli dute, euskara ez den beste ama hizkuntza bat duten usurbildarrek. Egitasmoari buruzko zehaztasun gehiago dakartza lerrootan, Elhuyar Hizkuntza eta Teknologiako langile Josu Aztiria.

Zer da Usurbilpedia?

Josu Aztiria: Gipuzkoako ikastolen jaia aurten Usurbilen izango dela aitzakiatzat hartuta, Elhuyarren laguntzaz, Usurbilgo zenbait eragile eta wikizalek abian jarri duten proiektu bat da. Pixkanaka, Usurbili eta usurbildarrei buruz Wikipedian dagoen informazioa osatzea eta eguneratzea da helburua, Usurbilen eta usurbildarren ondarea eskuragarri jartzea, euskaratik, auzolanean eta herritarren ahalduz digitala bultzatuz.

Horrelako egitasmo bat egiten den lehen aldia da?

Usurbilen bai, baina beste leku batzuetan egin dira horrelakoak aurrez. Donostiako Amara auzoan egin zutena izan dugu erreferentzia guk.



#Kilometroak15 egunari buruzko artikuluekin jarri da martxan Usurbilpedia. Beste hamar hizkuntzetara itzuli dute.

JOSU AZTIRIA, ELHUYAR

“Pixkanaka, Usurbili eta usurbildarrei buruz Wikipedian dagoen informazioa osatzea eta eguneratzea da helburua”

Irailaren 12an egin zenuten aurkezpena. Baina egitasmoa hasi besterik ez da egin, ezta?

Izatez, ibilbide luzeko egitasmo bat da. Hasteko, urriaren 4an herrian ospatuko den Kilometroak jaiari buruzko informazioa zabaltzea nahi da euskaraz eta Usurbilen hitz egiten diren ahalik eta hizkuntza gehienetan. Euskaraz egin da sarrera nagusia lehendabizi, eta ahalik eta hizkuntza gehienetara moldatzen ari dira, herritarren parte-hartzearekin. Jatorri desberdineko herritarrek Kilometroak 2015-en informazioa beste hainbat hizkuntzatarara zabalduko dute lau haizeetara.

Nork eta nola har dezake parte egitasmoan?

Proiektuarekin bat egin nahi duten guztiek har dezakete parte. Garrantzitsuenak ez da informatika-ezagutza, gogoia eta herriarekiko jakin-mina baizik. Wikipedian lan egiteko ikastaroak antolatuko ditugu nahi duten guztientzat, eta haiegan emango dugun informazioa baliatuz, nork bere erara lan egin dezake, artikulua berriak sortuz, osatuz, lehendik daudenak beste hizkuntza batzuetara itzuliz...

Zein izango dira hurrengo urratsak?

Idea ugari daude, eta zehaztuz joan ahala emango ditugu xehetasunak. Usurbilgo elkarteekin egon nahi dugu, proiektuan esku har dezaten, eta wikimaratoi bat antolatzeko asmoa dugu, auzolanean Wikipediako informazioa osatzeko. Garrantzitsua da herritarrek animatzea eta parte hartzeko beldurra galtzea. Horretarako, trebakuntza-saioak emango ditugu.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

USURBIL AUTOAK

·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79



urriak 4
2015

g!tunk
KILOMETROAK 2015
URRIAK 4

geligarri berezia





serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



PAUMA

URRIAREN 3an zabalik!

IREKIERA BERRIA!

SORRY 4 THE MESS

Petit Oh!

3pommes

ZIPPY

Levi's kids

NAGUSIA 10. USURBIL

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com




Opari segurua, Gattunk Tonbolan

Opariak baina batez ere ilusioa banatzera dator azken aldiz igande honetan, #Kilometroak15 ekimenaren aldeko elkartasun tonbola. Sargardo Eguneko eta Santixabeletako esperientzia arrakastatsuen ostean, hirugarren, eta diogun moduan, azken edizioa ospatuko da urriaren 4an. Ana Urdangarín, Larraitz Izagirre eta tonbola kideak zuen zain izango dituzue, poza eta esku bete opari banatzeko prest.

Aurrekoetan bezala, guztia jai giro ederrean. Adierazi digutenez, txartel guztiek opari segurua izango dute. Alegia, tonbolara gerturatu eta erosten duzuen txartel bakoitzeko sarituak izango zarete. Ezinezkoa izango zaizue beraz, oraingoan Oiardo Kiroldegi atarian kokatuko den gunetik esku hutsik joatea. Txartelak euro batean egongo dira salgai.

Opari zerrenda amaigabea

Luzea, oso luzea da Gattunk Tonbolak banatu nahi dituen oparien zerrenda; antolatzaileek aurreratu digutenez, Real Sociedad talde-



Igandean, Oiardo Kiroldegi aurrean topatuko duzue Gattunk Tonbola.

ko kamisetak, DVD-ak eta musika CD-ak, Gattunk markako arropa, Donostiako Aquarium eta La Perlarako sarrerak, kotxe telegidatuak, Irrien Lagunak taldekoen produktuak, mallotak... #Kilometroak15 laguntzearen truke beraz, saria ziurtatua duzue.

Gattunk Tonbola

- Eguna: urriak 4, igandea.
- Orduetgia: 09:00-20:00.
- Tokia: 1.gunea, Oiardo Kiroldegi atariko plaza.

Balkoiak apaindu

Herritik osteratxoa eman eta gorantz, etxaurreetara begiratzen duenak nabari du bai, egun handia heltzear dela. Hala gogorazten digute, hainbat bizilekuetako balkoietatik zintzilik dauden #Kilometroak15 ekimeneko banderola berdeek. Zuk ere, bizilekua urriaren 4rako girotu nahi baduzu, mugi. Igande honetako jaialdiaren aldeko banderola eskuratzeko ostegunera arteko tartea duzue. Gattunk Denda urriaren 1ean itxiko baitute.

Klikmetroak helmugara heltzen lagundu

4.000 metrotara heltzeko bidean da Klikmetroak egitasmoa. Baina gogoan izan, #Kilometroak15 lagundu eta aipatu ekimeneko ibilbide birtuala osatzeko guztira 5 kilometro egin beharrak daudela. Metroz metro, zuen atxikimendu mezuekin. Sartu klikmetroak.kilometroak.eus atarian eta babestu, girotu, berotu sare igande honetako jaialdi erraldoirako, zuen hitzekin.

3536. metroa, Ariane Monzon: "Ondo pasa denok Kilometroan!"

3535. metroa, Ainhoa Aranburu Sudupe: "Animo Usurbil! Dena ondo aterako da igandean!"

3534. metroa, Jon Azkue: "Urriaren 4an ikusiko Gattunk!"

3533. metroa, Aitana Davila: "Usurbilen Gattunk! Aupa Gattunk! Kilometroak15 Usurbil. Ondo pasa!"

3524. metroa, Iñigo Sasian: "Eman euskara elkarril!"

3508. metroa, Asier Agirre: "Gora Kilometroak! Guztiok lagundu behar dugu!".
klikmetroak.kilometroak.eus

Urriaren 1ean itxiko dute Gattunk Denda

Oparoa izan da azken urtean jorrratu duen ibilbidea, ahalegin itzela egin du egitasmoa aurrera ateratu duen bolondres taldeak. Bezeroak noiznahi saltokira sartu irtenean ikusi ditugu; bertakoak, nahiz Usurbila bisitan etorritakoak. Dendarekin nahiz eskaintzearekin liluratuta denak. Garaian garaiko, estilo anitz eta kolore guztietako arropa eskuragarri jarri digute apal eta gustu handiz apaindutako erakusleihoetan. Eta orain, hain emankorra izan den urtearen ondoren, pertsiana jaisteko ordua heldu da; Gattunk Denda ixtera doaz. Ostegun honetan, urriaren 1ean irekiko dute azken aldiz.

#Kilometroak15-en aldeko denda itxita eta hutsik ikusiko dugu



beraz, datorren aste amaierarako. Honenbestez, oraindik Gattunk markako arropa, nahiz produktuak eskuratu nahi dituzuenok adi. Urriaren 4an, denda kalera aterako baitute, #Kilometroak15 ekimeneko

zirkuitura.

5 kilometro luze izango dituen ibilbideko lau guneean, karpa handien babespean salmenta postu bana jarriko du, arropa salmentaz arduratu den taldeak. Zehazki,

zirkuituko puntuotan; lehen eta hirugarren guneean, Udarregi Ikastolako aparkalekuan eta Txara gaineko zelaian hurrenez hurren; Kalezarko plazan; eta laugarren gunean, Atallun.

Urriaren 1era arte

Gattunk Denda zabalik, orduetgia honetan: Asteleheneetik larunbaterara: 10:30-13:00 / 18:00-20:00 (astelehen goizetan, larunbat arratsaldeetan eta igandeetan itxita).

Urriaren 4an, non?

Gattunk materiala salgai: Udarregi Ikastolako aparkalekuan, Txara gaineko zelaian, Kalezarko plazan eta Atallun.

#Kilometroak15 Usurbilen: 11



1 2014/10/05: Emozio handiko unea. Lekuko hartzea, Orioko Kilometroak 2014 jaialdian.



2 2014/10/17: Lekukoa herrira iritsi zen, eta herritarren eskuetara heldu zen.



3 2014/11/29: Gattunk markaren aurkezpen ikuskizun ederra Oiardo Kiroldegian.



4 2014/11/30: Gattunk Denda ireki zuten. Bezeroen joan etorria etenik gabekoa izan da ordutik.



5 2015/3/18: "Gattunk, Gattunk lotzen gattun harira..." kantua aurkeztu eta berehala hasi ginen abesten.



6 2015/3/21-22: Badok15 jaialdiak, 19. Korrika eta #Kilometroak15 ekimenak batu zituen.

kontu, 12 iruditan



7 2015/4/22: Bideoklipa ezagutzeko ikusmin handia. Aurkezpen bikoitza egin behar izan zuten.



8 2015/5/17: Sagardo Eguna abiarazteko ohorea izan zuten #Kilometroak15-ek eta Udarregi Ikastolak.



9 2015/6/5: Sutegi hunkituta, Udarregi Ikastolaren sorrerari buruzko dokumental estreinaldian.



10 2015/6/18: Gipuzkoa inklusiboago baten aldeko dekalogoaren aurkezpena. Ehunetik gora erakunde eta eragile atxiki dira.



11 2015/7/1-5: Santixabeletan ere Gattunk txupinazoa, tonbola eta txosna jendetsua.



12 2015/9/12: ehunka ahots batu ziren #Kilometroak15-en aldeko kantaldian.

Ekitaldiz jositako 5 gune

1. GUNEA Ikastola / Agerialde

Agerialden:	13:30 Kezka.
09:30 Zabaltze ekitaldia.	15:00 Aukeran Dantza Taldea.
11:00 Erronka: 1. proba.	16:30 Oxabi.
12:00 Omenaldia, lekuko ematea.	18:00 Espaloian.
12:45 Erronka: 2. proba.	19:00 Amaiera.
13:30 Amaiera.	

L gunea, Lurra kalea

Udarregi Ikastolako belardian:	Kutxa Fundazioak antolatutako
09:30 Erronka: harrera.	Gipuzkoa solidarioa eta Kutxa
10:00 Erronka: aurkezpena.	Ekogunea postuak. Herri bara-
10:45 Labrit.	tzetara bisita eta haurrentzako
12:00 Udarregi Ikastolako	tailerrak. Jakoba Errekondoren
ikasleen musika eta kantu	kontsultak. Eusko Label pintxoak.
saioa.	Egun osoan (19:00etan amaiera).



2. GUNEA Aranerreka / Agerreazpi



10:15 U.K.Bill.	15:30 Hotzikara.
11:00 Erronka: 1. proba.	16:15 Izeberg.
12:00 Skakeitan.	17:30 Eskean Kristö.
12:45 Erronka: 2. proba.	18:30 Amaiera.
14:00 Betagarri (irudian).	

3. GUNEA Txaragaña / Harane



11:00 Tomaxen abenturak.	18:00 Amaiera.
11:00 Erronka: 1. proba.	
12:45 Irri Herri Anitz.	
12:45 Erronka: 2. proba.	
14:45 Korri, Xalto eta Brinko.	
16:30 Txantxariak.	

K gunea, Kalezar:

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak antolatutako tailer inklusiboak eta komun unibertsala.

4. GUNEA Atallu / Bizkarre



11:00 Erronka: 1. proba.	15:30 Anai-Arrebak.
11:45 Lain.	16:30 Erronka: finala.
12:45 Erronka: 2. proba.	18:00 Hesian (irudian).
13:30 Odolaren Mintzoa.	19:00 Amaiera.
14:15 Desegin.	

5. GUNEA Santuenea



10:45 Iñorkiñak.	15:15 Joseba B. Lenoir Gang.
12:15 Perlak.	17:00 Oreka TX (irudian).
13:45 Triki Ta Ke.	18:00 Amaiera.

Erronka, egun osoz



Argazkian, Udarregi Ikastola ordezkaturako duen erronkari taldea.

Kilometroak15 egunez ospatuko da Erronka handia. Parte hartzea nabarmen igo da iaiztik hona. 100 erronkari berri erakarriko baititu Usurbilgo jaialdiak.

Erronkarien artean, Udarregi Ikastolak ordezkaturako propioa izango du. DBH-n Erronkarako talde bat osatu dute. Urriaren 4ko hitzordu nagusiaren aurretik, zenbait proba egin dituzte jada. Azkena, bideo lehiaketa. Taldea aurkezteko bideo labur bat grabatu behar zuten. Sarean duzue usurbildarren ikusentzunezko lana, beste lehiakideek grabaturikoekin batera. Urriaren 15era arte gustukoena duzuen bideoaren alde bozkatu ahalko duzue. Udarregi Ikastolako taldearena, erronka-kilometroak.joveninhas-talos30.com atarian duzue. 1.000, 500 eta 250 euroko sari bana dago jokoan, txapelketara aurkezturiko hiru bideo onenentzat.

Erronka inklusiboa

Horiek Erronkarien proba nagusiak urriaren 4a heldu bitartean. Igandean izango dute egun

ERRONKA

“Erronka inklusiboa izango da. Gaitasun ezberdinak lantzeko jolasak izango dituzte”

handia. Indartua datorren edizioa aurtien Usurbilen. Erronkari kopurua igo da aipatu moduan, antolatzaileek 24 kidera arteko taldeak osatzeko aukera eskaini baitute. Bestalde, gune bakar batean izan beharrean, 4 guneetara zabaldu dute Erronka. Eta gainera egun osoz ospatuko da ekimena. Halere, #Kilometroak15 ekimenera datozen gazteek Erronka edota kontzertuez gozatzeko aukera izango dute. Denetarik astia beraz, antolatzaileek proba orduak eta musika emanaldiak aldi berean izatea saihestu baitute.

Erronka inklusiboa izango da. “Lasto fardoak”, “Globinkana”, “Eskalagardoa”, “Sagar biltzen” izeneko probetan nabariko da. Gaitasun ezberdinak lantzeko jolasak izango dituzte. Eta baita egunaren amaieran

ere, erronkari guztien arteko final handia ospatuko baita Atallun. Gazteek primeran pasako duten eguna, harrera eta aurkezpen ekitaldiarekin hasiko dute. Honatx egitaraua:

Urriak 4, igandea

1. gunea, Ikastola/Agerialde:

Udarregi Ikastolako belardian:
09:30 Erronka: harrera.
10:00 Erronka: aurkezpena.

Agerialden:

11:00 Erronka: 1. proba.
12:45 Erronka: 2. proba.
13:30 Amaiera.

2. gunea, Aranerreka/Agerreazpi:

11:00 Erronka: 1. proba.
12:45 Erronka: 2. proba.

3. gunea, Txaragaña/Harane:

11:00 Erronka: 1. proba.
12:45 Erronka: 2. proba
(13:30etan amaiera).

4. gunea, Atallu/Bizkarre:

11:00 Erronka: 1. proba.
12:45 Erronka: 2. proba.
16:30 Erronka: finala.



Budapesten indarberritzen

Gogotik lan egin dute azken urte honetan. Urriaren 4ko jaialdia ospatu ahal izateko auzolaneari aritu diren hainbat eta hainbat herritarrez ari gara. Lan taldeen artean ditugu, Gattunk Denda eta biltegiko boluntarioak. Egunotarako indarberritzen izan dira Budapesten (Hungaria). Handik helarazi digute ondoko argazkia, Gattunk banderola eskuetan eta kamisetak jantzita zituztela.

Herriko musika taldeen aldeko apustua

Azpirarratzekoa da herriko musikariena lana plazaratzeko eta herritik kanpo ezagutzera emateko antolatzaileek egin nahi izan duten ahalegina. Herriko bakarlarari eta talde guztiok, egun bakar eta berean, denak oholtza gainean ikusteko aukera ederra izango dugu igandean.

1. gunea

Ikastola / Agerialde, Udarregi Ikastolako belardian:

10:45 Labrit.
12:00 Udarregi Ikastolako ikasleek musika eta kantu saioa.
13:30 Kezka.

2. gunea

Aranerreka/Agerreazpi:

15:30 Hotzikara.
16:15 Izeberg.

4. gunea

Atallu/Bizkarre:

13:30 Odolaren Mintzoa.
14:15 Desegin.

5. gunea

Santueña:

10:45 Iñorkiñak.

“Usurbilera datozenak oroitzapen ona eramán dezatela”

Festa giro bikaineko egun alaia eta atsegina izatea nahi nuke. Bizipoza ematen duten horietakoa. Euskalduñon komunitatea sendotzeko balioko duena. Gure arteko errespetuan, erasorik gabe, eta ingurumena zainduz igaroko dena. Gustatuko litzaidake Usurbilera datozenak gure herriaz eta herritarrez oroitzapen ona eramatea: “hau da hau



Xabier Arregi, EHBilduko alkatea.

herri ederra, berriz bueltatuko gara hobeto ezagutzera!”.

“Aukera-berdintasuna bermatuko dugun eguna”

Topa Eszenika zela eta, “Jendartean bidaide” antzerkia ikusteko aukera izan nuen, izugarri gustatu zait eta zer pentsatua ere eman dit, asko daukagu ikasteko.

Urriaren 4an Usurbilen #Kilometroak15-en aitzakian jende asko bilduko gara, seguruenik ere inoiz egun batean bildu den gehiena, hau dela eta elkartzen garen guzti guztion artean eskubide eta aukera-berdintasuna bermatuko dugun egun bat izatea gustatuko litzaidake, nahiz eta jakin ez dela egun horretan bakarrik saiatu beharreko zerbaít eguneroko gure eginkizun



Josune Urkola, EAJko zinegotzia.

guztietan praktikan jartzeko zerbaít baizik.

Eta noski esan gabe doa, euskara nabarmendua izango den egun bat izatea gustatuko litzaidakeela, jakinik egun hau sortu zenean gure hizkuntza bermatzeko helbururekin sortu zela.

“Antolatzaileak beren helburu guztietara hel daitezela”

Lehenik, egin dezala egun bikain bat, euskaltzale miletako helduera baimentzeko; giro oneko jardunaldia izan dadila, umore askorekin, baketsua denarekin, errespetu askorekin deontzat, eta antolatzaileak bere helburu guztietara hel daitezela ehuneko ehunean.

Azkenik, herriko ekonomia, dendak, ostalariak...



Fermin Orue-Echevarria, PSEko zinegotzia.

eta gainerakoak egun handi honi ere etekina atera diezaioten.

“Eguraldia ez dago gure esku, baina, bai, argitasuna”

Egun argia eta betea izatea nahiko nuke. Eguraldia ez dago gure esku, baina, bai, argitasuna. Bakoitzak bere alderik onena eta argiena agerira atera eta ondokoarekin partekatzen badugu, pentsa zer distira sor daitekeen, berdindio ondokoa senidea izan, ezaguna izan, edo kanpotarra izan: eguzki berberak berotzen gaitu eta lur berberak eusten.

Beraz, zure, nire eta gure izpiz euskara argitzeko eguna izatea nahiko nuke. Egun beroa. Egun betea.



Yolanda Arrieta, idazlea.

Eta eguzkia inbidiatan baldin badago, datorrela, mese-dez!

“Denok gozatzeko modukoa izan dadila, denok bat eginda”

Egun handia denez, merezi duen bezala joatea gustatuko litzaidake. Kiro-larekin, kontzertuekin...

Denok disfrutatzeko bidea izatea, inongo diskriminaziorik eta inongo baztertzerik gabe. Denok bat eginda.




Sarai Lizaso, arraunlaria.

“Hartutako lanaren pareko festa izatea nahiko nuke”

Usurbildar guztiek egin duten lanak eta ahaleginak merezi duen adinako festa izatea nahiko nuke.

Eta noski, urriaren 4an, #Kilometroak15 egunean, eguraldiak lagundu diezagula!



Haimar Zubeldia, txirrindularia.

“Gazteek “Erronka” bezalako ekimenetan partehartzea gustatuko litzaidake”



Esther Arrojeria, eskubaloia jokalaria.

Egun polita eta alaia izatea espero dut, herria giro eder batean murgiltzea. Bestalde, gazteek “Erronka” bezalako ekimenetan parte hartzea gustatuko litzaidake, Kilometroak eguna bizitzeko modu ezberdina, baina aldi berean oso polita ere. Egun handia izango da herriarentzat eta herritarrentzat.

“Hunkigarria izango da milaka herritar helburu baten alde lanean ikustea”



Imanol Agirretxe, futbolaria.

Euskal giroan ospatutako egun jendetsu bat izango litzateke egun horretarako nire desioa. Hunkigarria izango da milaka herritar helburu baten alde lanean ikustea.

“Euskaldunon festa, alaia, errespetuzkoa, sanaa”



Andoni Sagarna, euskaltzain osoa.

